

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

174

AGINDUA, 2022ko abenduaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, Barakaldon (Bizkaia) dagoen CEIP «Rontegi» HLHI Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxearen izen espezifikoaren aldaketa onartzeko dena.

Barakaldoko (Bizkaia) CEIP «Rontegi» HLHI Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak hasarazitako espedienteaz aztertu da. Eskaeraren xedea ikastetxearen izen espezifikoa aldatzea da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: Heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa; Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua; apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua, eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Barakaldoko udalerrian (Bizkaia), Araba 9an dagoen «Rontegi» Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxearen izen espezifikoa aldatzea onartzen da; aurrerantzean, «Arrontegi Eskola» Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea izango du izena. Ikastetxeak 01405 eta 48000629 kode-zenbakiak ditu.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 22a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.